



Koronabirusaren pandemiaren ondorioak arintzeko xedez Europar Batasunak kultura- eta sorkuntza-sektorearen alde hartutako neurriak

Informazio gehiago:

https://ec.europa.eu/culture/news/coronavirus-how-eu-responds-outbreak-supportcultural-and-creative-sectors_en

Europar Batasunak argitaratu du EBko eskualde eta Estatuak ekintzak osatzeko eta sostengatzeko xedez EBk hartu dituen neurri eta ekimenen laburpena, hain zuzen ere koronabirusaren pandemiak kultura- eta sorkuntza-sektorean sortutako ondorioak arintzeari dagokionez. Neurriak honako hauek dira:

✓ **Estatuko laguntzak malgutzea:** Europar Batasunak Estatuko Laguntzei buruzko arauak malgutzea ahalbidetzen die Estatuari, hainbat sektoreri laguntzeko, koronabirusaren pandemiaren ondorioei aurre egitea xedetzat hartuta. EBko Estatuak konpentsazio bat eman diezaiekete enpresei koronabirusaren agerraldiak zuzenean eragindako kalteengatik. Halaber, laguntza finantzarioa eman dezakete erakusketak/kontzertuak/obrak bertan behera utzi behar izan diren kasuetan, inbertitutako dirua ezin itzul daitekeenean.

Informazio gehiago:

https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/en/IP_20_496

✓ **Koronabirusari Erantzuteko Inbertsio Ekimena/Coronavirus Response Investment Initiative (CCRI):** Batzordeak bi neurri-paketez osatutako ekimen hau proposatu zuen, Estatu kideei berehalako likidezia emateko. Finantziario hori gastatu gabeko Egitura eta Inbertsio Funtsetatik dator. Esparru arautzailean egindako aldaketei esker, Estatu kideek funtsak berrorientatu ahal izango dituzte azkar, Koronabirusaren krisiak gehien kolpatu dituen arlo eta sektoreetara zuzenduz. Europako Batzordeak azpimarratzen duen bezala, CCRIa aplikatzen zaie bai ETEei eta bai lan- eta berrikuntza-sektoreari, hezkuntza-, prestakuntza- eta kultura sektorearekin lotutako ekintzak dituztenean. Estatu bakoitzak identifikatu beharko du zein diren pandemia arintzeko lehenesten dituen ekintzak, eta aukera izango du bere lehenetsunak berrorientatzeko Egitura Funtzen aplikaziorako lehenetsitako esparruen baitan. **Informazio gehiago:**

https://ec.europa.eu/regional_policy/en/newsroom/coronavirus-response/

✓ **Langabezia-arriskuak larrialdi batean arintzeko laguntza (SURE):** Laguntza-pakete honen helburua da koronabirusaren pandemiaren ondorioak pairatu dituzten enpleguak babesten laguntzea. 100.000 milioi eurorainoko laguntza finantzarioa emango die Estatu kideei, bai langileei euren sarrerak mantentzen lagundu diezaieten eta bai enpresei bizirik irauten lagundu diezaieten, EB osoan. **Informazio gehiago:**

https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/en/QANDA_20_572

✓ **Enpresa txiki eta ertainak babestea:** Batzordeak iragarri zuen 8.000 milioi euro inguru eskuragarri daudela EB osoko enpresa txiki eta ertainei berehalako laguntza finantzarioa emateko. Batzordeak 1.000 milioi euro desblokeatu ditu Europako Inbertsio Estrategikoetarako Funtsetik, Europako Inbertsio Funtsetan

berme gisa erabiltzeko; horren helburua da tokiko bankuei eta beste mailegu- 2 emaile batzuei pizgarriak eskaintzea, gutxienez 100.000 europar enpresa txiki eta ertainei likidezia emateko. Informazio gehiago: https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/en/IP_20_569

✓ **Mugaz gaindiko dimentsioa laguntzeko sistema finantzarioa, arte eszenikoen alorrean:** Aurreikusita dago 2 milioi euroko deialdia 2020 maiatzaren amaieran argitaratzea; exekuzioa hirugarren hiruhilekoan hasiko litzateke, eta funtsak urtearen amaieran heldu litezke sektorera. ✓ Finantziazio gehigarria itzulpen literariorako: Creative Europe Programaren baitan itzulpen literariorako egin den azken deialdiaren epea maiatzaren 28ra arte luzatu da. **Informazio gehiago:**

<https://ec.europa.eu/info/fundingtenders/opportunities/portal/screen/opportunities/topic-details/crea-cult-lit1>

✓ **#CreativeEuropeAtHome Kanpaina:** Creative Europe programaren baitan gauzatzen diren jarduera ugari ezin gauzatu daitezke aurreikusitakoaren arabera, birusaren hedapena gelditzeko xedez gobernuek hartu dituzten neurrien eraginez. Creative Europe programaren onuradunei eskatzen zaie euren lan artistikoa onlilne erakutsi dezatela. Informazio gehiago: https://ec.europa.eu/programmes/creative-europe/content/discover-artcreative-europe-home_en

✓ **MEDIA Azpiprograma: Neurri bereziak** aurreikusten dira zinema-aretoetarako eta ikus-entzunezko sektorerako. Seguruenik, horren forma izango da 5 milioi euroko funtsen asignazio osagarri bat egitea, "bonu" moduan, itxiera gehien pairatu duten zinema-aretoei laguntzeko. Informazio gehiago: <https://ec.europa.eu/info/fundingtenders/opportunities/portal/screen/opportunities/topic-details/crea-cult-lit1>

✓ **COVID-19ak kultura- eta sorkuntza-sektoreetan izandako inpaktuari lotutako ezagutza trukatzeko plataformak.** Batzordea bi plataforma eratzen ari da erronkak eta irtenbideak EB mailan konpartitzen laguntzeko, COVID19ak kultura- eta sorkuntza-sektoreetan duen inpaktuari dagokionez.